



MEREZI IZAN ZUEN ETA MEREZI DU!

CUBA (1990) GERNIKA (2025)

Hogeita hamabost urte luze pasa dira Cuban (La Habana) jokatu ziren Munduko euskal pilota txapelketan euskal selekzio gisa desfilean parte hartu eta lagunarteko partidu batzuk jokatzeko aukera eta ohorea izan genuenetik. Oraindik ere oso harro sentitzen gara euskal selekzioaren aldeko aldarrikapen hark gerora balio izan duelako ofizialtasunaren aldeko iritzia zabaltzeko eta euskal gizartean mezua txertatzeko. Eta bide batez, egungo egoeran aurkitzako.

Hogeita hamabost urte pasa behar izan dira aldarrikapen harekin hasitako borrokaren fruituak ikusi ahal izateko. Azkenean, zorionez, urte guzti hauetako saiakerak eta borroka ezberdinak, (pilotariena, federazioena, instituzioena, politikariena, finean, gizartearen inplikazioarekin, eta zergatik ez esan, Nazioarteko Euskal pilota Federazioaren jarrera irekiarekin) gerturatu gara helmuga ingurura.

Nazioarteko Euskal pilota federazioak iazko abenduaren 28an Iruñean egindako Batzarrean EEPFa bazkide gisa onartu zuenean esan genuen modura, pozik eta harro sentitzen gara euskal pilota selekzioak lehen aldiz, Gernikan ekainaren 1tik 6ra jokatu den Munduko Kopa txapelketan parte hartuko duelako. Nola ez gara ba pozik egongo euskal pilotariak ikurriñarekin eta bere selekzioa ordezkatzuz lehiatzen ikusteko aukera izango dugunean. Bazen garaia!

Baina oraindik ere, aldarrikatzen jarraitzeko motiboak soberan daudela uste dugu. Horregatik, 1990 urtean, Euskal pilota Federazioaren gidaritzapean euskal selekzio gisa parte hartu genuenok elkartu gara hemen, Gernikan arituko den euskal pilota selekzioari gure babesa eta animoak emateko eta bide batez, benetako euskal herriko euskal pilota selekzio lortu arte, alegia, zazpiak bat ordezkatzeko duena lortu arte, urratsak eman behar ditugula aldarrikatzeko. Zentzu horretan, esan gabe doa, bat egiten dugula gaur hemen, EHPK eta EHEPSAM eragileek astean zehar Gernikan antolatutako ekimen guztiekin.

Merezi izan zuen eta merezi du! Jakina baietz!

Gora euskal herriko Euskal pilota selekzioa!

Donostia, (Euskal Herria) 2025ko maiatzaren 27a.